

Nafarrokaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko azaroak 20 / II. urtea / 51. zenbakia

Larra-Belagoako ikusmira



ondoko eski
boraldia
steiar dagoen
an, Larra-
elagoaz oroi-
en dira asko
a asko, horre-
rako Nafa-
rako paraje-
ederrena
ita. Aurten,
ina, bestela-
protagonis-
oa hartu du
amantxoia
Hiru Errege
ahaiaren ar-
ko alde pare-
be honek,
rtako pistak

nditu eta berriak egiteko asmoa dela eta. Erronkariko Batzarrak au-
ratu du dagoeneko proiektua, eta horren arabera, pistak handitu, za-
ldu eta egokitu egingo dira, eta hiru aterbe eta patinaiarako beste pista
rri bat egingo da. Horretaz gain, pista berriak eraikitzearen alde azal-
en da proiektua. Legearen arabera, baina, ezinezkoak lirake lan
uek, erreserba naturaletan ezin baita eraikuntzarik egin, eta ekologis-
protestak entzun dira dagoeneko. Bitartean, Belagoako aterbea be-
zkeko lanak amaitzear daude. Ingurua aldatu dezakeen ikusmira.

Barnean

PEDAGOGIA



Supergaituendako
zentrua ireki du
Serafin Argaizek / vii

PINTURA



Itziar Alforjak
jaso du Iruñea
Gazteendako Saria / viii

Amen eta omen



AINGERU EPALTZA

Batek badaki zeren ondorioz,
gure Iruñe zahar eta probin-
tziano hau kosmopolitismo
homologatzailearen bidean abiatua
dugu ziztu bizian. Harako jotero ha-
rek Calahorra-Kalagurriz zioen gi-
sara, ez dakit nongo metropolitako
urrinak usaintzen ahal ditugu jada-
nik, gero eta nabarmenago, gure
inguruan. Gu ere ez gara makalak,
gero, zerbaiti ekiten diogunean.

Harako jota haren haritik, Was-
hingtonen itxura bereganatua zuen
aspaldi gure hiriburuak. Apezpikua,
San Zerninen denboretatik; alkatea,
Evreuxtarrek eman ziguten, opari,
XIII. mendean; putetxeak, auskalo
noiztik, eta frontona, hain segur ere
betidanik, denendako jakina baita
euskaldunok aurrehistoriatik ari
garela hemen pilota-jorran.

Orain, aldiz, New York izan nahi
dugu, eta hori ezina bada —oraino
ez zaizkigu Arrotxapea edo Sandu-
zelaira etorri Bronxi iduri kolore-
tsua erasten dioten puertorrika-
rrak— bai bederen Madril, London
edo Parise.

Ezin bertzela, Diputazioaren in-
guruko espaloiak ekarri zigun, duela
zenbait urte, aldaketaren lehen arra-
za. Emakume galez estaliriko mutil
puskek bereganatu dute ordutik hain
gertakari loriatsuak ikusia den alde
hori eta ez dirudi, ehun metro ha-
ratago, La Perlaren inguruan prota-
gonista femeninoak dituen bertze
merkatuaren damuz, gaizki joaten
zaienik. Ortzirral arrats guzietan,
Bartzelonako Ramblak Karlos III.
Etorbideraino ailegatzten dira.

Espaloi horretatik mugitu gabe,
bertzalde, ikus ditzakegu, jai nahiz
aste, uso eta jubilatuen goizak alai-
tzen dituen jonki troparen ibilera
errenak. Wembley edo Portobello-
ko karriburu zoldazu bat ote? Ez
jauna, gure hiriaren esentziak zer-
tzen dituen Gaztelu Plaza.

Orain, berriki ikasi dut, gauez,
Takonera aldea —Central Park,
Bois de Boulogne-ren pare— ho-
mosexualen bilgune dela. Ikasi ere
dut, bertze egitekorik izan ez eta ho-
mosexualak dantzatzea denborapa-
sa hartu dutela mutil saldo motodu-
nek. Berlingo neonaziak ez ditugu,
beraz, hain urrun.

Hurrengoan, paisa bat tragutuko
dute San Agustinen edo senegales
bati tripak eginen Erletokietan. Ge-
ro, ezenario zoragarri horrekin, ida-
zle trebe baten lumak Iruñeak oraino
falta duen nobela ahantzezina digu
idatziko. Nobela beltza, jakina.

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Jose Antonio Legorburu pintorearen lanak ikusgai daude Tafallako Kultur Etxeko erakusketa aretoan, Kultur Patronatoak eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura sailak antolatutakoak. Erakusketa hila- ren 29a arte izanen da zabalik.

Roberto Gonzalez pintorearen lanak ikus daitezke Iruñean datorren 29a arte, Lan Kide Aurrezkiak Sarasate Ibilbidean duen aretoan. Pinturaz aparte, eskulturak ere baditu artista honek, baina oraingoan oleoak bakarrik ekarri ditu.

IKASTAROAK



Ipar eski ikastaroak egin daitezke Aralarren abenduaren 1etik martxoaren 28a arte, Larraungo udalak antolatutakoak. Orduetara 9,30etatik 13,30etara izango da. Bi modalitate daude, 'Aste zuria' eskolakoentzat, 4.800 pezetatan, eta 'Bi asteburu' helduentzat, materialekin 6.700 pezetatan eta materialik gabe 4.800etan. Izena eman daiteke Lekunberriko Kiro- l Bulegoan.

ANTZERKIA



'**Barkatu tristeza**' izeneko obra antzeztuko du igande honetan, hilak 22, La Zaranda taldeak,

ERRAN DUTE

Udalaren langilegoaren % 20ak huts egiten badu ere, ez da ezer gertatzen».

Santiago Cervera
Zerbitzu Orokorretarako zinegotzia

«Itoizko koordinakundearen alde agertu nahi dut».

Jose Antonio Urbiola
Nafarroako EAJko burua

«Emakumeak gogor borrokatu behar du lorategiaren papera ez egitearren».

Carmen Tomas
Kazetaria

«Bost futbol taldetan egon naiz, baina bihotza, beti, gorritxo izanen da».

Pizo Gomez
Futbol jokalaria

Las Coronas-Garonako amildegia

Asteburu honetarako Las Coronas mendatea eta Garonako amildegien arteko ibilbidea proposatzen dizugu Club Deportivo Navarraren eskutik. Mendatetik bertatik, Mellugatik, ateratzen den altxonbidea hartuko dugu, eta bost kilometrotan zehar Illongo mendizerra zeharkatuko dugu. Burgiko Potxa azaltzen da ezkerrean, sail, ugatz eta arranoekin. Bertan oraindik gelditzen dira jatorrizko paisaiaren aztarnak.

Bi kilometro t'erdi ibili ondoren, Legarozko lautadara helduko gara, eta altxonbideari jarraiki, harkaitzen artean arituko gara, ezpeldiak eta korosten artean, Ollateko lautadaraino heldu arte. Bertan 13 trikuharri daude zenbatuta. Hortik behera, Garonako amildegitik, Gazteluberrin eta Biguezalen arteko errepideraino helduko gara. Hortik, Landoraino, bederatzi kilometro. 1.100 metro altueran, Leireko mendizerraraino.

Igotzen garen bitartean, gure



gibelean geldituko dira Illongo mendizerra eta Arbaiungo Potxa zizeltzen duen arroila. Cerradatik (1.250 m.) Esako urtegia eta mendizerraren magala ikusiko dugu,

monastegiarekin.

Izena eman nahi izatekotan, CDNra deitzea baino ez duzu egin behar, arratsaldeko 7etatik 9etara. Tfnoa.: 22 43 24

arratsaldeko 8etan Nafarroako Antzerki Eskolaren aretoan. Emanaldi hauek Eskola eta Gobernuraren artean antolatu duten udazkenerako kanpainan daude, eta sarrerak 600 pezetan salduko dituzte. Gazte txartela izenez gero, 300.


arratsaldeko zortzietan izango da, eta Kultur Patronatoak antolatzen duen 'Ostiraletan... Antzerkia' saioaren barruan dago.

'**Pie Zatos**' izeneko obra eskainiko du gaur, hilak 20, Gorakada antzerki taldeak, Bianako Kultur Etxean. 'Kontsumoari buruzko antzerki zoragarria' dela lan diote egileek, eta arratsaldeko 5etan emanen dute. Bertako Erentzun ikastolak antolatu du.

'**Aleph**' izeneko antzezlana eskainiko du, gaur, hilak 20, Gabalzeka taldeak, Tafallako Kultur Etxearen aretoan. Emanaldia

ASTEKO PERTSONAIAK

Zupo Ekisoain



Mepamsako entrenatzailea

Hankartean ez duzue behar dena», bota zien, itsumustukan, Ekisoainek jokalariei, eta hauen erantzuna azkar asko etorri zen: «bernarrea baino, bere lana aztertu beharko luke Zupok». Egun txarrak dira Mepamsarendako. Primeran hasi zuten denboraldia, eta, behingoz, hau izanen zela urtea zirudienean, atzeritarren jokoa behera etorri zen. Haiei bota zieten errua, baina azken partiduan, talde osoak egin zuen huts. Ekisoainek postua zuzendaritzaren esku jarri zuen, baina honek berretsi egin zuen entrenatzailea. Bitartean, jokalariek kritikoak dira entrenamenduekin...

Juan Cruz Alli



Lehendakaria

Euskararen Legearen aldaketaren kontrako botoa eman zuen asteartean, UPNko parlamentari guztiak bezalaxe. Nafarroako lehendakariak. Frankotan azpimarratua zuen euskararen normalizaziorako egin beharreko ahalegina, eta esan ere esan zuen: «ni ez naiz euskararen kontra jarriko». Hori dela eta, kritika gogorak aditu behar izan zituen Juan Cruz Allik asteartean Nafarroako parlamentuan, eta irribarreraren bat ere antzeman zitzaion ezpainetan, berak aldeko botoa ematea eskatu ziotenean. Eskuak lotuta, edo berritsu gertzurero?

J. Manuel Goikoetxea



Altsasuko alkatea

Etxeagarete zabaldu egingo da, azkenean, Urbina (Araba) eta Maltzaga (Gipuzkoa) tarteko autopistarekin batera, Eusko Jaurlaritzak aste honetan jakin ahal izan duenez. Jose Manuel Goikoetxea Altsasuko alkatea izan da Nafarroan zabalketa horren aldeko defendatzaile sutsua, eta, aste honetan bertan ere, bere poza eta itxaropena azaldu zuen aldeko erabakiaren aurrean. Nafarroak, beraz, Parise zein Madrilekin Europaren mailako komunikazioak izango ditu, iragarritako epe guztiak betetzen baldin badira, behintzat, 1998. urterako.

Margarita Nafarroakoaren omenezko meza-kontzertua izanen da heldu den igandean, hilak 22, Korellako elizan. Bertan, Haendel, Perosi, Mozart eta Verdi- ren lanak, besteak beste, abestuko ditu 'Virgen del Villar' orfeoiak, Juan Jose Catalanen zuzendaritzapean. Erreginaren jaiotzaren 500. uturrena dela eta antolatu den zikloaren barruan.

BESTELAKOAK

Herri Meza izanen da bihar, larunbata, arratsaldeko 6etatik aurrera San Juan Bautista Parrokian. Antolatzaileek 5.30etatik azaltzea gomendatzen dute, abestiak behar bezala prestatzeko.

Euskaraz Bizi kanpainaren barruan Sukaldaritza Lehiaketa antolatu du Zizur Nagusiko Ipur- targi Gau-Eskolak, gaur, ostira- lean. Hiru plater prestatuko behar dituzte Garrantza Elkar- team, arratsaldeko 6etatik aurrera. Ondoren, denendako afaria.

MENDI IBILALDIAK

Bardea Txurian zehar Mountain Bikendako txangoa antolatu du Iruñeko Club Deportivo Navarra taldeak heldu den igandera. Horretarako izena eman behar da egoitzan, arratsaldeko 7ak eta 9ak bitartean.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, 30 **seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.4

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazte- tendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 83.7

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.1

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

Elizondo


Turismoa bultzatzeko patzuergoa

IRUNEA

Bertizko Patzuergo Turistiko (BPT) Baztan-Bidasoako udal eta enpresarien bost elkarlanean bildu berri dira, zona osoko turismoa bultzatzeko. Bultzatzaileek elkarlanean adierazi zuten, elkarrekin legez osatuko da turismoko honen amaiera baino lehen. Zentroak bertzen bertan izango dira kokapena, eta bertan zuzenean irudia bultzatzeko ahaleginak lanak bilduko dira. Nafarroa Pirinioetako eskeintzen baten berezko pertsonalitatea eskaintza asmoz. Gainera, eta aukera berrak bultzatzeaz gain, aurreratu berri den egitasmoarekin bertako arlo guztien modernizazioa eta profesionaltasuna lortu behar dute, Europako Merkatu Berari egokitu.

Bertizko Zentro Turistiko honen lehendabiziko asmoak 1991n dute hasiera, alkateen ordezkaritza batek turismoa garatzeko planari buruz aurrekontuak onartu zuenean. Hain zuzen ere, 1994an 14ean aurreratu ziren lanak erreturatu zuten elkarlanean ahalegina.

KALITATEKO TURISMOAREN BILAKETA Joan zen astean aurreratu zen bertako talde berria zuzendatzen zuten prentsaurrekian, eta bertan Baztan, Doneztebe, Elgorriaga, Urrotz, Donabarrena, Sunbilla eta Berako alkateak



Zonak eskeintzen dituen aukerak bultzatu nahi dituzte.

teek, duela gutxi sortu diren dendariak, jatetxeak, hotelak eta landetxeen elkarrekin ordezkariek batera, patzuergoaren berri eman zuten, eta lehendabiziko asmoak plazaratu.

Pedro Perez Uritz Baztango zinegotziak azaldu zuenez, turismoaren eskeintzak «kalitatekoa» behar zuen izan, eta dauden baliabide guztiak egokitu eta koordinatu beharra azpimarratu

zuen. Hain zuzen ere, bileran azpimarratu zen zona osoan dagoen lanerako gogoia, eta nahiz eta iragarpen ekonomikoak oso onak izan —Laminaciones, nekazaritza eta abeltzaintzaren beharrezkoak— etorkizun ona antzematen zaio arlo honi.

Alde osora hurbiltzen den turismoa goi mailakoa da, Nafarroako Gobernuak duela gutxi plazaratu zituen datuen arabera,

eta horretan zeresan handia izan dute lau urtetik hona arrakasta handia izan duten landetxeek. Hain zuzen ere, alde hau da, Pirinioetako ibarrekin batera, Nafarroan landetxe eskeintzarik handiena duena.

Horretaz gain, bertako erakaragarritasunak ezagutaraztea derigarritasunak jotzen da patzuergoaren lehendabiziko iragarpenetan.

Larraun

Plazaolaren ibilbideari

betza

IRUNEA

Larraungoak ezazik, Basaburua eta Imozko udal ere ezetza eman berri diote Plazaolaren ibilbideari. Herri Batasunak aurreratu duen mozio batean Nafarroako Gobernuak horretarako asmoari ezetza ematea esan zuten eta, onartutakoaren aldetik, edozein alternatiba aurreratu udal guztiekin kontsultatu behar da.

Mozioan agertzen denez, Plazaola trenbide zaharraren ibilbidea bultzatzeko asmoak «ez daukate inongo aurrerik», eta horretarako, ez behintzat asmoak ezartzen lurraren desjabetzak ezinbesteko murrizketen ondorioz. Gainera, eskeintza ez dela «ingurugiroa» azaltzen da bertan, eta zalantzan jartzen da haranaren erabilgarritasunaren eragin ekonomikoaren eragin dezakeenik».

Faltzes

Nekazaritza ekologikoa aztergai

IRUNEA

Pasa den asteartean hasi eta hilaren 26an amaituko diren nekazaritza ekologikoari buruzko jardunaldiak Faltzes eta Milagron artean egingo dira, aditu frankoren partaidetzarekin. Jardunaldiak Biolur Nafarroa elkarlanean antolatu ditu.

Mintzaldietan ekonomiari buruzko gaiak, ingurugiroa eta ekoizpenari buruzkoak izanen dira aztergai, eta modalitate honen ohizko nekazaritzaren aurreratu dituen abantailak aztertu eta plazaratuko dituzte.

Faltzesen jardunaldiak asteartean, asteazken eta ostegunean izango dira eta astelehenean aurreratu jarraituko izango dute. Milagron ere asteazkenean hasi ziren, eta heldu den astean amaituko dira.

Horrela, gaur ostirala, Milagron, nekazariaren balorazio sozialari buruz arituko da Antonio



Ohizko nekazaritzari alternatiba da ekologikoa.

Bello biologoa, kalitatea, salmenta onak eta kutsadurarik eza kontutan harturik.

Astelehenean, hilak 23, abeltzaintza ekologikoaz mintzatu da Paco Cabodevilla abeltzain

eta albaitea, Faltzesen, eta Milagron Jesus Pirla kalitateko fruituei buruz arituko da. Amaitzeko, mahainguru bat izanen da ingurugiroari buruz eta nekazaritzaz, ostegunean.



IRUNEA emanen dio hasiera martxoaren 26an hasiko den Korrika 93ri, AEK-ko arduradunek azaldu berri dutenez. Korrika apirilaren 26an amaituko da Bilbon. Halaber, AEK-ko matrikulazio datuak eman ziren ezagutzera bertan. Nafarroan 2.125 ikasle ari dira aurten euskara ikasten, hau da, jaz baino 112 gehiago. Zonaldeka Iruñerria da nagusi, 1.230 ikaslerekin, eta ondoren Sakana eta Lizarrerria datoz, 208 eta 175 ikaslerekin, hurrenez hurren.

DORRAO eta Unanuako biztanleek kablez ikusiko dute telebista, Larraungo Gorritikoekin batera, Nafarroako Gobernuak horretarako instalakuntzak egiteari baietza eman berri baitio. Helburua, nola ez, seinalaren kalitatea hobetzea da.


ITURENgo 'Herriko Ostatuak' atek ireki berri ditu, birmoldaketarako lanak behin amaituta. Bertan gipuzkoar gazte talde bat sartu da, eta asmoa da ohizko ostatu eskeintza ematea, hau da, lo eta jan egitekoa. Horretaz gain, taberna eta menu bereziak ere prestatuko dira.



BAZTANgo ikastolan klaseen etenaldia izan zuten asteartean erreka batek gainezka egin eta urak zentroaren sarreran sartu zirelako. Mendinueta kalea urez beterik zegoela eta, Merkatuzelai zentrorra joaten diren 162 ikasleek ezin izan zuten ikastolan sartu. 24 orduz iraun zuen azkenengo eurizaparradak Baztango ibaian urak metro t'erdian baino gehiago egin du gora. Patxi Oyarzabal Elizondoko alkatea eta Miguel Angel Adin eta Pedro Perez zinegotziak erreka bere bidean jartzeko lanak hasiko direla hitza eman zioten ikastolako kontseiluari.

LIZARRAko Juan Maria Agirre Etxabari udaltzaina bertako biztanle bat jipoiitzeagatik zigortu berri du Instrukzio Epaitegiak. Gertaera apirilaren 22an izan zen, gruak ibilgailua kendu zuenean. Jesus Maria Albistur kotxearen jabea bere bila joan zen, eta eztabaida izan zen bertan. Horren ondorioz, udaltzainak porra ateratu eta Albistur jipoiu egin zuen. Honek sendatzeko 15 egun behar izan dituen zauriak eragin zizkion, eta orain hamabost eguneko arrestua eta 75.000 pezaketako isuna ordaindu behar du Agirre jaunak.

500 metro eztabaatuak



- Legend for map symbols: Aterpea, Eski pista, Pagadia-lzeiak, Pinu Beltza, Haitzak, Larrea, Lur landua.

pena erreserbaren barruan ematen denaren parekoa da. Garbi dago orain arte ez dela bete legea, arau...

Larra inguruko pistak ez daude erreserbaren barruan baina bai, ordea, honen ondoan aurrikusita dagoen 500 metroko babespen eremuaren barruan.



Fondoko eskia eta ingurugiroa, elkartuta baina elkarren aurka?.

Larra-Belagoan dauden fondoko eskirako pistak zabaltzeko proiektua onartu berri du Erronkariko Batzarrek, eta horren arabera hiru aterbe gehiago, pista berriak eta azpiegituran hobekuntzak egingo dira. Proiektuari buruzko azterketa egin behar du orain Nafarroako Gobernuak...

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Erronkariko Batzar Orokorak aspaldidanik duen ametsetako proiektua da honakoa. Azken urteotan izugarriko gorakada izan du bereziki fondoko eskia baina baita mendia eta elurrarekin lotuta dauden kirol guztiek ere, eta turismoa bertako zonarako irtenbide paregabea azaldu da. Horrela, duela lau urte egindako pisten zabaltzeko eta azpiegiturak hobetzeko erabakia hartu zuten batzarrek. Horretarako deialdirako hiru proiektu aukeratu ziren, eta horien artean, bat onetsi da azkenean. Proiektua behin onartuta, Nafarroako Gobernuaren Ingurugiro Sailaren azterketa behar du izan, ondoren Gobernuak bere azken erabakia plazaratu dezan. Prozesua baina, ez da errezegia izanen, oztopo legalak ez baitira falta. Gogoratu behar egun dauden pistak Larra erreserba naturaletik oso gertu daudela, eta egin nahi diren pista batzuk horren barruan sartuko lirarteke. 1987ko apirilaren 10ean onartutako Lurraldearen Erabilera eta Babespenarako 6/187 Lege Foralaren arabera, erreserba naturalen ezinezkoa da lurren mugimenduak egitea, kirol antolatuak egitea edota ingurua larri kaltetu lezakeen beste edozein jardura. Baimenduta dauden eraikin bakarrak ikerkuntza edo ingurugiroari buruzko hezkuntzarekin lotutakoak dira, baina, salbuespen gisa, «interes orokorreko» azpiegiturak onartuko dira, ingurugiroarendako kalte larriak sortzen ez badute. Oraingo pistak, esan bezala, ez daude erreserbaren barruan baina bai, ordea, horren ondoan aurrikusita dagoen 500 metroko babespen eremuaren barruan. Izan ere, bai erreserba integral, bai erreserba naturalen inguruan, eremu hori derrigorrezkoa da, legeak azaltzen duenaren arabera, eta babes-

aterpe berriak, patinaiarako pista bat, dauden pistak zabaldu eta azpiegitura oso bat —aparkalekuak, seinalizazioak, hobekuntzak, zerbitzu-etxeak eta abar— aurrikusita daude. Horrela, Belagoa-Mata de Hayan patinaiarako pista bat proposatzen du proiektuak, elurra ez dagoenean aprobetxatzeko, baina bertako eskirako pistak ere ez dira desagertuko. Aterperen atetik bertatik ia ateratzen den Eskilzarrako pista, Zemetoraino zabalduko litzateke proiektuaren arabera,

nahiz eta hori erreserbaren eremuaz zabalduko litzatekeen. Pistek egun duten bost metrotik seira zabalteza proposatzen da bertan, eta ibilbidea orekatzeko lanak egingo lirarteke. Halaber, pinadiekien birlandaketak aurrikusita daude, haizearen eragina leuntzearen. El Ferialeko pista ere Zamporaira zabaltzea proposatzen du txostenak, eta zabaltzeaz gain, ibilbidea orekatu, zenbait munitxu, kendu, lurraren azala lautu eta pinuekin birlandatzea da helburua. Halaber, ibilbide guztietan seinalizazio hobe egingo litzateke eta hiru aterpe berriak eraiki nahi dira: Bortuzko, El Ferial eta Eskilzarran, zerbitzurako bi etxetxorekin batera. EGUNKARIAK jakin ahal izan duenez, proiektuan «legearen malgutasunaren aldeko deia» egingen zaio Administrazioari. «kontutan hartuz inguruak eta proiektuak eskaintzen dituzten aukerak». Ingurugiro Sailaren onespenez zaila dirudi, baina legeak bertan dioenez, honen txostena ez da lotesle izango. Erabakia, politikarien eskutik.

Betiko arazoa

Larra-Belagoan egun dagoen arazoa gaur arte hamaika aldiz eta hamaika tokitan planteatu da: garapena edo ekologia? Arazoa da garapenaz zer ulertzen den, turismoarekin beti antzeko arazoak sortzen baitira, bereziki horren eragina bat-batean sumatu duen zonen batean.

Belagoan turismoak gora egin du nabarmen azken urteotan, eta horrek interes handiak sortu eta bultzatu ditu, bertakoen bizimodu aldatzeraino. Inguru berean erreserba naturalak egotea, kalte gisa ikusi dute batzuek garapen prozesu honetan, eta ingurugiroa babesteko erreserban ere pistak eraikitzea proposatu da. Erronkariko Batzarreko presidentek duela gutxi esan zuen egunkari honetan babesturik zeuden naturagunetan ere pistak zabaltzeko asmoa zutela, eta aukeratu berri den proiektuak horren aldeko apustu garbia egingen du. Ekologikistak, bitartean, Nafarroan dagoen naturagune garrantzitsuenetakoa —erreserba integral batekin— babestearen aldekoak dira, eta pilaketaren aurka azaltzen dira argi eta garbi: «Ibarra turismo masifikatuari saltzea izango litzateke, eta horrek hondatu egingen du ingurua».

Ekologiaren garrantzia gero eta errotuagoa dago gizartearen, baina, ezinbestez, jarduerak berak eragin kaltegarriak sortzen ditu inguruetan. Nola ulertarazi hori turismoaren bidez lehen ez zeuden aukerak antzeman dituzten herriek? Hor dago kokxa.



Belagoako aterbea itxia egon da lanen azken epeak izan bitartean.

Belagoako aterbea berritzeko lanak amaitzeaz

A.B. / IRUNEA

Iruñeko Club Deportivo Nafarroa mendi taldeak Belagoan duen aterbea berritzeko lanak heldu den hilabetearen buruan amaituko dira, eguraldiak lanak gehiago atzeratzen ez baditu, behintzat. Duela 20 urte eginda, Euskal Herriko aterberik ezagunenetakoa da egun, hasierako asmoekin orain dagoen erabilerekin zerikusitu gutxi bazuten ere.

Aterbea egiteko lehendabiziko proiektuan Belagoako ibarra zena asmoa, taldeak Auñamendi eta Hiru Errege Mahaia frankotan antolatzen ziren txangoetarako, eta CDNko bazkideei zuzenduta. Garai hartako errepidea 11 kilometroan amaitzen zen, baina aterbearen asmoekin batera Zuberoarekin lotura izango zen errepideena ere azaldu zen. Honek baldintzatu du aterbea eta Belagoa bera.

Masifikazioa denek aipatzen dute, baina CDNn ez dute horretaz ezer jakin nahi. «Garbi esan behar da —dio Angel Oloron CDNkoak— aterbea errepidea egin baino lehen pentsatu genuela. Eskirako pistak ere ondortik etorri ziren, eta orain dagoen polemikan guk ez dugu ezer esan nahi. Ez zaigu komeni, eta ez dugu horretan zer ikusirik».

URTEBETEKO LANAK ATZERATUTA Lan berriek, baina, aukera handiagoa emango diete bisitariak, baruko instalakuntzak franko hobetu baitira. Iazko abenduak hasi ziren lanak, eta urrirako amaituta izango zireneko asmoa bazegoen ere, aurtengo eguraldi kaskarrak atzeratu egin ditu.

Komunak, ur horniketarako sarea, eta baita barruko erredistribuzio berria ere egin da, eta horren ondotik litera gutxiago gelditu badira ere —140tik 120ra—, modernoago eta erakargarago dago aterbea.

Zure odolak elurretan uzten duen arrastoa

1992.ean, udamina ez zen heldu uztailera Idusak izan arte. Galtetan, Tour-aren borrokariek erabakiorrena jokoan zegoen, eta eurial Indurain hutsal eta hauskorra erakusten zuen. Pentsak aizkorakada, taldeburuak eta erasoen epika astindu zuten orduan. Grial-eraino bidai luze eta oztopo askoa iragartzen zioten. Baina Indurain ametsen materia berberaz osatua dago, eta bere izakerarekin bat, borrokaldira bakar aski izan zuen gerra irabazirik uzteko. Gainerakoak tramite hutsa izango zen bere ezker-eskuinean agertu beharko zuten lapur ona eta gaiztoa nor ziren erabakitzeko. Eta hara non, Champs Elysees-etik, Juan Cruz Allik laburtu zuen dena, mintzaira esoteriko samarrez, Indurain Iruñerriko nafarraren eredu zela esatean.

Herce izatera helden den gizakume orok kosmologia bereziki behar du, jatoriasun mitikoa, bere lorpen eta garaipenaren tamaina azaltzeko eta, era berean, frogarekin bat behar du, bere handitasun osoa neurtzeko adinako erreferentzia gisa.

Gaur egungo heroei ongi ematen diete haizearen irudiek. Carl Lewis haizearen semea da. Indurain, berriz, fagoen usaina Iruñerria ekarri eta segalariei Cierzoaren berehalako freskotatua iragartzen dien arrastiriko haizearen semea da. Indurain Bagurriren semea da. Bagurriren artean inspirazioaren antzera jokatu du. Hor dago, baina harra-patzeko beharrezko da lanean aritzea. Eguzki basaren azpian ahalegin jarrai eta zikliko baten ondotik, oskorria hurbiltzen denean, orduan bakarrik, zeharkatzen ditu Bagurrirek Iruñerriko iparraldeko muga eta Beorburuko Bagadixar mendia. Orduan Induraini birrikak puzten zaizki, apo erretzailen baten antzera.

Epikak gustokatu ditu horrelako errepikapenak. Indurain, Galtetan irabazte, zaldi alemaniarrek eramaniko gurdien sartzan da Pompaelo hirian, txalotzen duten giza-hormen artean. Balkotik agurtzean, herria eta agintariak bere oinetara makurturik, Indurainek frogarekin hori gaitzitzen du. Patuak aukeratu dion garaipen intimoa

eta tribala da. Cesar izendatu dute, azkenik, 'cuenco' bat, azokako usakume-saltzaile baten semea, intxaurren baten azpian kuluxka garaian harrapatu eta gaizki sendatutako katarro bantengatik hiltzen ziren segalari haiei ondorengoa. Iruñea inguruan, Atarrabia zortzi mila biztanle eta 'cuenco' segalari familia bat daukan herria da. Bagurri arduratsua da bere jendearekin. Heroek nekazaritzako lanabes eta pozoinez ezagapen zuzena izango zuten familiakoa behar zuen.

Iruñea ez da 'cuenco' hiriburua. Iruñea beti izan da harresiz inguratutako hiriburua harroa, itxia, bereziki inguru hurbilean, harresiaz bestaldekoari, 'cuencoari', 'cuencoak' beti izan dira atzeritar beren hirian, eta iruindarren batek hau zalantzan paratzen baldin badu, bere buruari galdetzea baino ez dauka zer izena duen fago usaina dakarrena haizetako horrek, hiriko iparraldean, ekialdean eta mendebaldean Bagurri deitzen duten horrek.

Iruñea ez da 'cuenco' hiriburua. Iruñea beti izan da harresiz inguratutako hiriburua harroa, itxia, bereziki inguru hurbilean, harresiaz bestaldekoari, 'cuencoari', 'cuencoak' beti izan dira atzeritar beren hirian, eta iruindarren batek hau zalantzan paratzen baldin badu, bere buruari galdetzea baino ez dauka zer izena duen fago usaina dakarrena haizetako horrek, hiriko iparraldean, ekialdean eta mendebaldean Bagurri deitzen duten horrek.

Harreman orotan bezala, izan zen garai bat zoragarria eta urrezkoa, hiria eta bere mendixen artean. Pentsa dezagun Erdi Aro Garaian, munduaren jabearen Armadak hiria erre zuenean, eta zenbait lekukoz osatutako tropa txiki batek Roldanen buruz mendeku hartu zuenean. Ez da errez, sinisten bizirik gelditu ziren Iruñeko bakan horiek eta Maria ezkizilik urrun bizi ziren Pirinioetako artzaitxo batzuk hain minduta geldituko zirenik, Erdi Aroko epika bitzeraino. Talde handiena 'cuenco' izanen zen eta, ausartzen naiz esatera, Argaz eskuinaldekoak, gainera. Armada pretorianoen

na. Bagadixar mendiaren hegoaldean jaio eta iparraldera ezkondu zen. Mendi horretan Pagobakar izeneko dermioa dago eta bertan, Iruñeko Irateko Monastegia kaleetik tresnarik gabe ikus daitekeen pago erraldoi bat dago. Lepo horretatik sarzen da Bagurri, Cierzoaren enbaxadore goxoa, udaminaren anasa. Hor bizi zen hirirako hain nekosoan zen euskal aditza erabiltzen zekien azken 'cuenco'. Guzti honek apokaliptiko eta milenaria badirudi ere, egia borobila da. Fagoen usaina aditu zitekeen Iruñerriaren ipar haizeak jotzen zuenean, eta orain soilik 'La Proveedora' hiltegiarena.

gisara aritu ziren, izan ere hiria andregai baitzuten metropoliak sortzeko garaia zetorrenarako.

Hala ere, eta Donejakue Bi-dearen garapen komertzialarekin batera, eta hau historia da, Nafarroako erregeek biztanle okzitaniarak aukeratu zituzten, eta mota guztietako foru eta monopolio eman zizkieten erromesekin tratuan ari zitezten. 'Cuencoak', euskaldunak eta segalariak, merkatuaren legeetatik kanpo gelditu ziren, salerosketetatik at. European, merkaturik kanpo gelditzeak bazterkeria eta azpigarapena dakartzaraz. Arrazoiak garbi daude, alde batetik, haien artean ez zegoen merkaturarazko tradizionari eta, bestalde, euskara traba zen edozein hizkuntza erromanikoren-tzat. Iruñeak burgoen banaketa gainditu eta gremioak, leinu eta hizkuntza komunitate desberdinak gizararen baitan batu zirenean, boterea, berriz ere, komunitate erdaldunak atxiki zuten. Iruñeko udalak euskaraz emandako bando bakarra XIX. mendeko da, frantziarren okupazio garaiko, udaltxeko maizterrek hizkuntza politikari buruz deus gutxi zekitenean. Eta orduan da, XIX. mendean, 'cuencoak' beren hizkuntza garbitu, eta mende t'erdian akabatzen dutenean euskara, haien amodio platonikoa, harrisi garietako hiri maitatua, haizetaz maitemintzea lortzeko azken saioan.

Iragan abuztuan hil zen Esteban Garbisu beorburuarra, Xulapain ibarreako, segalari eta euskalduna. Bagadixar mendiaren hegoaldean jaio eta iparraldera ezkondu zen. Mendi horretan Pagobakar izeneko dermioa dago eta bertan, Iruñeko Irateko Monastegia kaleetik tresnarik gabe ikus daitekeen pago erraldoi bat dago. Lepo horretatik sarzen da Bagurri, Cierzoaren enbaxadore goxoa, udaminaren anasa. Hor bizi zen hirirako hain nekosoan zen euskal aditza erabiltzen zekien azken 'cuenco'. Guzti honek apokaliptiko eta milenaria badirudi ere, egia borobila da. Fagoen usaina aditu zitekeen Iruñerriaren ipar haizeak jotzen zuenean, eta orain soilik 'La Proveedora' hiltegiarena.

Harreman orotan bezala, izan zen garai bat zoragarria eta urrezkoa, hiria eta bere mendixen artean. Pentsa dezagun Erdi Aro Garaian, munduaren jabearen Armadak hiria erre zuenean, eta zenbait lekukoz osatutako tropa txiki batek Roldanen buruz mendeku hartu zuenean. Ez da errez, sinisten bizirik gelditu ziren Iruñeko bakan horiek eta Maria ezkizilik urrun bizi ziren Pirinioetako artzaitxo batzuk hain minduta geldituko zirenik, Erdi Aroko epika bitzeraino. Talde handiena 'cuenco' izanen zen eta, ausartzen naiz esatera, Argaz eskuinaldekoak, gainera. Armada pretorianoen

Gazteendako Zokoa

Pirripioa

Lullula arborea
Atzerakada Nafarroan
Hegatzabalen antzekoa
Erdialdean bereziki



Zabaltasunaren laguna

Hegatzabalekin antza handia dauka hegazti honek, baina isatsa motzagoa eta ertzean koloreduna du. Mokoia mehea eta bularraldea txuria, zenbait marrarekin.

Oso ongi nahasten da garia eta artoaren artean, bere kolore ñabarra dela eta, eta horregatik gehien nabarmentzen dena bere doinua da, bi doinu musikal eta atseginak. Kantua, hala ere, oso neutroa da, eta batez ere hegan egiterakoan aditzen zaio, gora egiterakoan. Hala ere, zuhaitzen gainetik ere abestu egiten du, eta hau da bere familiakoekiko nabarmentzen duena.

Janaria —bikoak eta insektuak— lurtean bilatzen du, eta bikote edo talde txikitik bizi da, ez baita gehiegi mugitzen. Gustukoak ditu lurralde zabal eta irekiak, zuhaitzekin tartekatuta, eta zaila da aurkitzea baso zein aterberik gabeko zelaietan. Europan oso zabalduta dago, eta iparraldeko populazioek migratzeko joera dute.

Nafarroan bereziki erdialdean zabaltzen dira, baina aurkitu izan dira baita Bidasoan nola Erriberan ere.



Mikelen gezurrak

XABIER GORRITXO

Mikel 10 urteko mutil gezurti bat da, beti gezurrak esaten, kallean, etxean eta baita ikastolan ere. Baina hori ez da okerrera, okerrera da inork baino hobeto esaten dituela eta nahiz eta gezurra dela jakin beti sinistuko diozu.

Hortaz aparte trastadak jo ta fuego egiten ditu, munduko mutil bihurrena da! Ilea motz-motz dauka, eta ikatza bezain beltza.

Ikastolatik bi kilometrotara bizi da eta noski, ikastolara joateko autobus motel bat hartu ohi du, sarritan hondatzen den horietako bat. Hori gertatu bezain laister bidaiari guztiak triste samar jartzen dira eta batzuk autobusetik atera eta 'auto-stop' egiten hasten dira, baina Mikel, loteria jasoko balu ere ez zen hain pozik jarriko. Yupiiii! handi bat bota ondoren horrela dio:

—Hau nire eguna da! Ez dut ikastolara joan beharko!

Horrelakoxea da Mikel, edo zer egingo luke ikastolara ez joategatik. Gogoan dut atzo goizean gezur handi hura bota zuenean, ikastolara ez joatearren.

Jaiki bezain pronto a ze bihurrikeria bururatu zitzaion:

—Ama! Ama! Non zaude! Ez dut ezer ikusten, itsutu naizela uste dut!

Ama izututa zegoeta eta, erabat larritu zen. Tris-tras batean telefonoa hartu eta ospitalera deitu zuen. Eskua dantzatzu eta ahotsa trabatuz ahal zuen bezala hitz egin zuen.

Horrela, izugarrizko iskanbilarekin, ambulanzia iritsi zen, eta txuriz jantzitako bi medikuen artean Mikel kamilan jarri zuten.

Mikelek, arnasa estututa, sekulako zarata ateratzen zuen, eta eskuak begietara eramaten zituen, mina eramango baliote bezala. Nork esan gezurretan zebilela? Hain ondo egiten zuen itsuaren papera!

Anbulantziaren atzekaldean jarri zen Mikel, eta ondoren bere ama, burua laztantzen. Mikelek, bitartean, oinazeko aurpegia jartzen zuen. Baina, ustekabean, Mikelek ederki sartu zuen hanka, esanez:

—Ama, ama! hara hor aitatxoren kamioia!

Baita ama konturatu ere, Mikelek zirria sartu ziola! Ikustekoa zen kopeta beltza txoferrari ikastolara eramateko esanez. Ondoren Mikel besotik hartu eta ederki astinduz errieta galanta bota zion, eta, hitzik esan gabe, tomatea baino gorriago jarri zen.

Anbulanzia ikastolako atarian aparkatu eta amak, haserre bizian, Mikel besotik hartu eta klaseraino eraman zuen, ate aurrean iprudiko pare bat eman eta bultzaka sararazi zuen.

Mikel, burua makur, erabat lotsatuta, bere tokian eseri zen. Andereñoak zer zuen galdetu eta Mikel negarrez hasi zen.



BASAJAUN

Ingurugiroko bioindikadore hobereak haurrak dira, haurdun dauden emakume, atso eta gaixoekin batera. Europan urtero milaka haur hiltzen dira, istripuz, minbiziaz eta alergia mota askorengatik, nahiz eta osasunerako zerbitzuak beste leku askotan baino askoz ere hobekak izan.

Adibide adierazgarri eta penagarri bat: Txernobileko istripuaren lehen biktimak Ukrainiako umeak izan ziren, beren gurasoek eta Ukrainiako gizon-emakumeek zentralaren erradioaktibitate nahiko ondo jasan baitzuten.

Umea jaiotzen den une berean kutsadurarekin egiten du topo, airean dagoen kutsadura berehala nabaritzeko aukera baitauka.

Izan ere, gure hirietako aireak ez ditu betetzen beharrezko baldintzak. Egunero arnasten dugun airean, karbono monoxidoa, azufre dioxidoa, karbono dioxidoa, eta nitrogeno dioxidoa, hautsa eta burdin astunak daude. Zenbat gaixotasunetan kutsadurak berak eragina zuzena du, *pseudo-krupp* edota laringitis estridulosa gaixotasunak heriotza eragin baitezake.

Baina kutsaduraren arazo guztiak ez datoz industria, trafikoa edo eguratsetik. Orain dela urte batzuk egindako ikerketan argitu ahal izan zen kanpoko kutsadura etxe barrukoa baino txikiagoa zela kasu askotan. Gure logela eta etxeetan dauden berogailu, margoak eta aglomeratuek botatzen dituzten emisio kimikoez botatzen dute gas hauek. Horrela, logelak margotzeko orduan, adibidez, pintura sintetikoak erabiltzen dira, eta horiek oso kaltegarriak dira haurren osasunarentzat.

KAZKARROAN

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoan Beran jasotako esaera zahar bat ageriko zaizu.

1. Bigundu
2. Gor bihurtua
3. Airean
4. Egungo
5. Jakingo banu

| | | | | | | | | | | | |
|---|----|---|---|---|---|---|----|---|---|---|----|
| D | 7 | A | 3 | B | 9 | B | 1 | D | 1 | A | 12 |
| B | 6 | A | 8 | B | 5 | B | 8 | D | 8 | D | 10 |
| A | 5 | D | 4 | B | 7 | D | 9 | A | 6 | B | 4 |
| A | 11 | A | 1 | D | 2 | B | 12 | A | 7 | B | 11 |
| A | 2 | B | 2 | A | 4 | A | 10 | D | 3 | D | 6 |

| | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|----|----|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| A | | | | | | | | | | | | |
| B | | | | | | | | | | | | |
| D | | | | | | | | | | | | |

Zaharrak berri

Goiena baino gorago deus ez da.

Irabazi eta irabazi joan arren, goiena jo ezkerro, akabo.

Oskotz

Begibista txarreko gizona ilea-paindegira joan zen. Betaurrekoak kendu ondoren, moztu zioten ilea, baina bukatuta ere, han zegoen, kieta.

—Ez zenuten ba lo hartuko?

—Lo? ez, ez. Ez nuen aurpegia ikusten, eta joana nintzela uste nuen.

Jenero Xumekoak

Klaus Kinski konfesioea egiterakoan

Nik badut birtute aunitz. Lehendabizikoa dudarik gabe Modestia da. Eta horren ondorioz ezin dut gainerako guztiak esaten segitu.

Bizi Bizian

Iruñean irekiko da luze gabe normala den baino adimen handiagoa duten Euskal Herriko lehendabiziko zentroa. Serafin Argaiz pedagogoa bultzatuta, ikastetxeetan landu ezin dituzten dohaiak trebatzea da asmoa, eta horretarako hogeitamar hurrek egin dute dagoeneko eskaera. Arazo bereziak eta gaizki ezagunak dituztenenako soluziobide berria.

Adimenaren arazoak

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Ismaelek 11 urte ditu, baina dagoeneko pinturarako dohain apartak erakutsi ditu. Koloreak bereizteko orduan, izugarritzko ahalmena dauka, eta «pintore handia» izateko ezaugarri guztiak dituela diote. Anak, 13 urterekin, pianoko zortzigarren maila gainditu berri du. Horretaz gain, konpositorea da, eta Londreseko eskola batean egiten ari da ikasketak. Izaskunek bost urteko edade mentala dauka, orain dela lau jaio arren, eta bost maila gorago egoteko gaitasuna dauka. Musikarako izugarritzko dohaina erakutsi du dagoeneko. Serafin Argaizen zentroan sartzeko izena eman duten hogeitamarren arteko adibideak baino ez dira, bartzuk harrizkoak benetan.

Hala ere, eta 'normaltasunetik' aldentzen den guztia bezalaxe, arazoak ez dira falta ohizko adimena baino handiagoa duten hauen atzetik. Orain arte, gizarteak oso gutxi hartu ditu kontutan baina izan, badaude. Argaizek urte franko eman ditu ezinduekin lanean, eta bere ustetan, arazo antzekoa dute: desberdinak izatea. «Ez daude eroso euren buruarekin, somatzen dutelako desberdinak direla, eta gizarteak desberdina den guztia baztertzeko joera izaten du».



EUSKAL HERRIAN AITZINDARIA Euskal Herrian aitzindari den zentro honetarako matrikula irekia dago duela hogeitau egunetik hona, eta epe honetan hogeitamar bat ikaslek eman dute dagoeneko izena, gehienak Nafarroakoak. Serafin Argaiz pedagogo, musiko eta bidaiariaren azken proiektua da, urte franko baitarama hezkuntza bereziaren mundu honetan.

1944ean hasi zen, Nafarroan ireki zen mutugorrendako lehendabiziko zentroarekin, eta ondoren, ezinduen arloari ekin zion, Iruñeko Vergel kalean dagoen zentro pedagogikoan. Administrazioak hezkuntza berezi honen ardura bere gain hartu zuenean utzi egin zuen, eta orain, berriro, utzi samarturik dagoenari heldu dio.

Izan ere, gero eta kezka handiagoa dago hezkuntzaren munduan aparteko dohainak erakusten duten haur hauekin. Zenbait daturen arabera, urtetik urtera ikastetxera sartzen diren haurren % 3k aparteko inteligentzia daukate, hau da, 120 koefizientetik gorakoa. Argaizen ustetan, Nafarroan 1.500 izan daitezke. Hori dela eta, Serafinek Europan dagoeneko nahiko ezagunak diren zentroa ireki nahi du Iruñean. Asmoa ez da haur hauek gizartetik bereiztea, laguntza eskaini eta dituzten dohain eta ezaugarriak bultzatzea baizik. «Ikasteko izugarritzko ahalmena daukate

—azaldu du Serafin Argaizek—, eta eskoletatik kanpoko orduetan ezaugarri horiek bultzatu nahi ditugu hemendik».

Zentroan sartu aurretik haur orori test bat egingo zaio, zertan nabarmentzen den jakin ahal izateko. Ohizkoena da, baina, arlo gehienetan maila bikaina izatea. «Ez daukate behar adinako hezkuntza, eta motz gelditzen zaie ikastetxetan ematen dena. Horregatik, ahalmen horiek bultzatzeko sortu da fundazioa». Oraindik hasi ez bada ere, kontzertu bat antolatzeko asmoa dauka Argaizek, zenbaiten trebetasunak erakusteko. Inteligentzia erakusgai.



Iruñeko Vergel kalean ireki du zentroa Serafin Argaizek. JOXE LACALLE

Burua gorputzaren aurretik

Haur aurreratuen arloa psikologiak gutxien aztertu duenetakoa izan da, duela oso gutxi arte. Ezinduek eta beste gaixotasun mota frankok hainbat urtetako ikerketak eta azterketak izan dituzten bitartean, populazioaren % 1 eta % 3 bitartean dauden hauen arazoak ez du behar adina arreta jaso.

Adituen ustetan, aurreratutak ohizkoa den mailatik goitik daude hala psikologikoki nola mentalki. Hau da, berebiziko ahalmenak dituzte baina horretaz gain, beren urtekideek baino lehenago gara-

tzen dute nortasuna. Hori adierazteko burua gorputza baino lehenago doala esan ohi da. Nerabe garaian, aldiz, gorputza buruaren aurretik doa, eta hortik sortzen dira arazoak.

Beren buruarekin ezezik, etxean eta familian ere arazak ohizkoak dira. Dena berehala ulertu eta bereganatuta, aspertu egiten dira eta alferrik izatera ere hel daitezke, beste ziztadaren bat jasotzen ez badute. Gainera, arazoak eta kezka larriak oso azkar ulertzen dituzte, eta horrek ere egoneza sakona sortu ohi die.

Esan bezala, gutxi ikertutako gaia izanik ere, izan dira dagoeneko haur hauen tratamendurako proposamenak baina bi jarrera desberdin antzematen dira. Badaude eskola berezien aldekoak direnak, bertan haur hauen ahalmen eta dohai guztiak behar bezala garatzeko, eta badaude ohizko ikastetxetan uztearen aldekoak, bertan tratamendu eta segimendu berezia emateko.

Itziar Alforja

pintorea

Itziar Alforja gazte eta artista iruindarrek Iruñea Artista Gazteen Lehiaketa irabazi berri du. 200.000 pezetako ordainsaria eta heldu den urtean Iruñeko Gotorlekuan erakusketa antolatzeako aukera

emanen dio Udalak 'Ez zapaldu' koadroaren truke. Hala eta guztiz ere, Alforjak ez du uste lehiaketak antolatzea aski denik. Bere iritziz, erakunde ofizialek gehiago egin beharko lukete artista gazteen alde.

«Lehiaketak antolatzea ez da aski»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

Lehen saria irabazi du Itziar Alforjak lehiaketa batera aurkeztu den bigarren aldian, hirugarren saiora itxaron gabe. Arte Ederretako ikasketak amaitzeko hilabete batzuk besterik ez zaizkio geratzen, baina berak ikerketekin dihardu teknika eta material proposen bila. Animazioa gustukoa duela dio, baina saria 'Ez zapaldu' koadroarekin lortu du.

EGUNKARIA.— 'Ez zapaldu' koadroarekin Iruñeko Artista Gazteentzako lehiaketa irabazi duzu. Zer deritzozu gazteentzako lehiaketa mota honi?

ITZIAR ALFORJA.—

Udalak antolatutako lehiaketa honetan —esate baterako— epaimahaia lau funtzionari eta hiru artistak osatzen zuten, hau da, politikariak gehiengo osatzen zuten. Formakuntza politikoak formakuntza artistikoak baino garrantzi handiagoa izan du epaimahaiaren erabakian. Hortik abiatuta, argi dago emaitza ezin dela ona izan.

EGUNKARIA.— Artista gazte batek lehiaketa hauen beharra dauka?

ALFORJA.— Horrelako lehiaketak beharrezkoak dira, baina ez dira aski. Urtean behin lehiaketa bat antolatzea ez da aski, horrela ez duzu ezer lortzen. Egia esateko saria ondo dago, hori ezin da ukatu. 200.000 pezeta emanen dizkide, eta datorren urtean erakusketa bat egiteko aukera. Hori nolabait mundu honetan hasteko

bide bat izan daiteke, bestela oso zaila izanen litzateke erakusketak egin ahal izatea. Sarian garrantzitsuen nire ustez hori da, erakusketa egiteko aukera.

EGUNKARIA.— Parte hartu al duzu inoiz beste lehiaketa batean?

ALFORJA.— Bai, duela gutxi Nafarroako Diputazioak antolatzen duen lehiaketa parte hartu nuen. Arraroa bada ere, obra berbera aurkeztu nuen lehiaketa horretan. Antolatu zuten erakusketa parte hartzeko aukeratu ninduten, baina ez zidaten inolako saririk eman. Udalaren Lehiaketarako beste koadro bat egiteko asmoa

neukan. Hor lan eta lan ibili nintzen, baina azkenean ez nuen koadro berria bukatzeko astirik izan, eta berbera aurkeztea erabaki nuen. Ez zen ez erabaki txarra izan.

EGUNKARIA.— Egun, Leioako Arte Ederretako Fakultatean ikasten duzu. Unibertsitatea bide egokia al da formakuntza artistiko ona lortzeko?

ALFORJA.— Unibertsitatea agian ez, baina bai ordea bertan izaten dituzun

harremanak. Nire ustez unibertsitatea ez da inondik inora beharrezkoa baina bide ona da, han mugitzen den jendea ezagutzera eramaten zaituen bidea. Bertan artearen munduan mugitzen den jende mordoia ezagutzen duzu, haien pentsaera, eta baita lan egiteko era ere. Horrek asko aberasten zaitu. Dena den, ez dut uste unibertsitatetik maila onarekin ateratzen zarenik. Unibertsitatea berez, gaur egun pobrea

da, eta pobretzen zaitu, zeure burua espezializatzerara bortxatzen zaituelako.

EGUNKARIA.— Zein material eta teknikak erabili dituzu 'Ez zapaldu' egiteko?

ALFORJA.— Materialei dagokienez, zabortegian aurkitutako bi taula, fotokopiak, eta beste hainbat gauza erabili ditut. Erabili ditudan teknikak ere bat baino gehiago izan dira, estanpatzea, karriketa...

EGUNKARIA.— Azaldu dezakezu koadroaren mezua zein den?

ALFORJA.— Ez zait gustatzen nere lana ikusi ez duen inorri horren gaia zein den azaltzea, eta tamalez, irakurle gehienek ez dute nire koadroa ezagutuko. Dena den, artearen munduan dauden legionarien aurkako salaketa bat da.

EGUNKARIA.— Koadro honetan materialen birziklatzea erabili duzu. Normalean egiten duzun zerbait da?

ALFORJA.— Materialen birziklatzea diru arazoa da, besterik ez. Ni oraindik ikerketa fase batean nago.

Teknika eta material ezberdinekin froga anitz egiten ditut, eta ezin dut jakin egingen dudana ondo edo gaizki aterako zaidan. Gauza asko egiten ditudanez, eskura dezakedana erabiltzen dut. Aberatsa izan beharko nuke beti material onak erabili ahal izate-



Gotorlekuan, bere koadroaren aurrean.

JOXE LACALLE

ko. Aukera bakarra material onak gauza oso konkretuak egiteko erabiltzea da, eta tamalez horixe da egiten dudana.

EGUNKARIA.— Ikertzen ari zarela diozu. Nondik nora doaz ikerketa horiek?

ALFORJA.— Pinturan bertan

beste arlo ezberdinak jorratzen ditut, pintura ez direnak ere egiten ditut. Esate baterako tabernak dekoratzen ibilia naiz, eta bideoa eta animazioa asko gustatzen zaizkit. Bi animazio laburmetraiak egin ditut orain arte, eta pilo bat gustatu zait arlo hori.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERQA

